



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

2020IOP0001

91/2020 Dekretua, otsailaren 4koa, diruzaintzako administrari lanpostua betetzeko lehiaketaren hautaketa-batzordeko kideak izendatzen dituen, eta onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onartzen duena

2019ko abenduaren 20ko tokiko gobernu batzarrak, besteak beste, erabaki zuen diruzaintzako administrari lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdiaren oinarriak onartzea, baita hautaketa-prozesuari dagokion deialdia egitea.

Lehiaketarako oinarriak, eta deialdia bera, udaleko web orrian argitaratu da eta 2020ko urtarrilaren 13ko GAOn.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu denez, lehiaketa arautzen duten oinarriei jarraikiz

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Honako pertsona hauek izendatzea balorazio-batzordeko kide:

Lehendakaria: Xabier Urdangarin Lasa, eta bere ordezkoa, Esti Neira Martinez

Mahaikidea eta idazkaria: Kontxi Urdanpilleta Santamaria, eta bere ordezkoa, Ana Beldarrain Lasa

Mahaikideak:

Andoni Gartzia Arruabarrena, eta bere ordezkoa, Axun Mugica Erquicia.

Amaia Bengoetxea Arrozpide, eta bere ordezkoa, Izaskun Ollokiegi Albizu.

Izaskun Txintxurreta Ibabe, eta bere ordezkoa, Ana Mugica San Miguel.

BIGARRENA.- Diruzaintzako administrariaren lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. Zerrenda ebazpen honen eranskinean dago.

HIRUGARRENA.- Prozesutik kanpo utzitako pertsonen 10 eguneko epea ematea alegazioa aurkezteko – ebazpen hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita –.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada edo ofiziozko akatsik hautematen ez bada, behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau udaletxeko iragarki-taulan eta webgunean argitaratzea

Astigarragan, 2020ko otsailaren 4an.

Xabier Urdangarin Lasa
alkatea



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

ERANSKINA. Onartu eta baztertuen behin behingo zerrenda

ONARTUAK

	Izen abizenak	NA zkia.
1	Mxxxx Bxxxxx Ibxxxxru Fxxes	xx.xxx.294 P
2	Laxxixx Eixxxxxx Zxxldxx	xx.xxx.116 D

BAZTERTUAK

	Izen abizenak	NA zkia.	Arrazoa
1	Itxxxx Azxxxxxxdi Quxxxxta	xx.xxx.351 N	Astigarragako udaleko karrerako funtzionarioa ez izatea
2	M. ^a lxxxx Sxxx Ormxxxxx	xx.xxx.001 R	Astigarragako udaleko karrerako funtzionarioa ez izatea
3	Aixxx Maxxxxx de la Txxxx	xx.xxx.523 P	Astigarragako udaleko karrerako funtzionarioa ez izatea